

EUSKARA MALETAN

Kaixo lagunok, Antton izeneko gizon hezurtsu, argal eta ahul bat naiz. 1508. urtean jaio nintzen Nafarroako Iruñea herrian. Umezurtza naiz. Izan ere, gurasoak galdu nituen Nafarroako erresumaren aldeko borrokan. Ez ziren momentu errazak izan, bakar bakarrik atera behar izan nuelako aurrera. Baina hala ere, lortu nuen. Hona hemen nire historia:

Nire gurasoak hiltzean 4 urte soilik nituen. Ume mukizu hutsa nintzen eta ez nekien zer egin aurrera ateratzeko. Ia ez nekien hizketan ere, izan ere, nahiz eta nire gurasoek euskaraz hitz egin, Gaztelarrek gure lurra bereganatu zituztenetik inguruan entzuten nuen hizkuntza nagusia gaztelera zen. Euskarak nire gurasoak oroitzen zizkidan. Orduan konturatu nintzen euskara niretzat ez zela eta ez dela hizkuntza soil bat: nire haurtzaroa da. Nire gurasoen oroitzapen argia (ia beraien aurpegiak ahaztu ditudalako jada). Eta euskara ez zen hori bakarrik; ez nekien oso ondo zer zen, baina banekien oso garrantzitsua zela nire gurasoak euskara defendatzeagatik ere hil zirelako. Hala benetan hizkuntza bat soilik ote zen?

Nire gurasoen lagun batengana joaten nintzen ogi apur bat lortzera eta harekin ikasi nuen euskaraz. 15 urte nituenean konturatu nintzen benetan euskararen garrantziaz: gure hizkuntza zen, euskaldunak lotzen gintuena. Barruan generaman. Beraz, euskara bultzatzea erabaki nuen, euskara zabaltzea, nire gurasoengatik gehienbat: beraiek hasi zuten lana nik jarraitzeko beharra neukala sentitzen nuen.

Ez zen erraza izan. Euskal Herria Gaztelaren menpe zegoen eta bertan ere ez ziren momentu errazak: euskaldunon herriak erre zituzten, emakumeak bortxatu, haurrak hil eta euskaraz hitz egitea galarazi ziguten. Ezkutuan ibiltzen ginen beti zerbait egingo ziguten beldurrez. Iruñean zegoen egoera ikusita, bertatik alde egitea erabaki nuen: neuzkan apurrak maletan sartu, abarkak eta txapela jantzi eta Nafarroako bide lokaztuetatik barrena Lekunberriraino iritsi nintzen.

Bertan, aurrerapen handiak egin nituen: bertako umeei euskararen garrantzia irakatsi nien eta gazte batzuk elkartu ondoren, Nafarroa osotik bidaiatu genuen beldurrak atzean utziz eta berriro euskara aldarrikatu. Euskarak gorantz egin zuela ikusirik, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoara zabaltzeari ekin genion. Ekin eta ekin, beste probintzietan ere lortu genuen gure eginkizuna eta euskara garatuz joan zen, probintzia bakoitzean euskalki ezberdin bat sortuz.

Horrela lortu genuen euskara berriro ere kaleetan barrena entzutea eta zabaltzea nahiz eta Euskal Herriak Gaztelaren menpe jarraitu. Bukatzeko, hori borrokatzen jarraitzea gelditzen da nire gurasoek beti nahi izan zutena lortzeko.

Nik egin nuen nire egin beharrekoa, orain zuen esku uzten dut gure herri, hizkuntza eta euskararen etorkizuna. Ondo zainduko al duzue eskuartean duzuen altxorra?